

## **ELA ETA LAB SINDIKATUEK BERTAN BEHERA UTZI DIEGU GURE PARTE HARTZEARI FUNTZIO PUBLIKOKO MAHAI OROKORREAN, ADMINISTRAZIOAK NEURRI ATZERAKOI GUZTIAK ERRETIRATU ARTE**

**ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuek mobilizazioetarako deia egiten diete langileei**

ELA eta LAB sindikatuek, gaur, abenduaren 2an, egin den Funtzio Publikoko Mahai Orokorrean adierazi dugu Gobernuak iragan 23an planteatuko proposamena irrazionala eta arduragabea dela, politika neoliberal zaharrei jarraitzen dielarik. Planteamendu horrek arlo publikoko eta pribatuko langileen arteko enfrontamendua bilatzen du, jendartearen pobretzea, zerbitzu publikoen murriztea eta, gizarteak gehien behar duen unean, eta enpleguaren suntsiketa eta eskubideen murrizketa dakartza berarekin.

Mahai Orokor honetan aurkeztu dituen proposamenak erretira ditzala, urraturik dagoen aurreko akordioa bete dezala, zerbitzu publikoak garatzearen alde egin dezala, sor dezala enplegu publiko gehiago eta kanpoko esku-hartzerik onar ez dezala exijitu dugu.

Modu berean, politika publikoetan aldaketa eskatzen diogu. Aurrekontuetan gastu soziala handitzea, eta horretarako beharrezkoak diren politika fiskalak bidera ditzala, fiskalitate justuago baten alde.

Atsedenaldi baten ondoren Sailburuordeak karrera profesionalari dagozkion ordainketak eteteko proposamena kentzea onartu du.

ELA eta LAB sindikatuok neurri erregresibo guztiak hauek eta eskubideen galera dakarten guztiak erretiratzeko eskaera errepikatu dugu. Sailburuordeak ez du argitu baztertzen dituen ala ez, horren aurrean, ELA eta LABek bilera honetatik altxatzen garela eta soilik hurrengo bilera aurretik neurri erregresibo guzti horiek baztertzen badituzte itzuliko garela negoziaketa mahaira adierazi diegu.

ELA eta LABek salatu nahi dugu lanpostuen mantentzea langileen eskubideen galeraren ordainetan izatea. Badakigu dialektika hau faltsua dela, gezur hutsa dela, eskubideen murrizketak onartzen baditugu enplegu galera onartzen dugu. Gobernuaren negoziaketa estrategia hau ile hartzea da eta xantaia iraunkorra, hortaz gobernuak atzera botatzen ez baditu ez dugu bertan parte hartuko.

ELA, LAB eta STEE-EILASek mobilizazioekin jarraituko dugu zerbitzu publikoak indartzeko, kalitateko enplegua sortzeko eta zerbitzu publikoetako langile guztien lan baldintzak hobetzeko.